



HITZALDIA

HERRI-PARTAIDETZA ETA AUZOGINTZA DONOSTIAN. Arkaitz Aranburu (Amara Bai Auzo Elkartea).

1. AUZO ELKARTEEN PAPERA

ATZO: Elkarteek parte hartu nahi eta ezin. Udalaren aldetik inoren parte hartzea sustatzeko borondaterik ez.

Elkarteak urte hauetan auzoetako aldarrikapenak bizirik mantentzeko eragileak izan dira. Gauzak beste era batez egiteko aldarrikapena gogotsu defendatu dute.

Eta ezin dezakegu ahaztu, Arestiko elkarten zeregina egoera politikoarekin lotuta zegoenez, herritarren eta eragileen askatasun-aldarrikapenak plazaratzeko erabiliak izan ziren.

GAUR: elkarten aldetik parte hartzeko nahi berdina, baina eragozpenak aurkitzen dituzte, eta arrazoiak bat baino gehiago dira.

Eta ezin diogu udalaren jarrerari egotzi bakarrik, auzo elkarten dinamika zaharkituak ere izan dezake eragina.

Donostian, egun, Udalaren aldetik borondatea egon daiteke baina gauzatzeko bizio zaharkitua ditugunez komunikazio eta jarrerak enkistatzen dituzte / dira.

GAUR ETA ATZOKO EZAUGARRI AMANKOMUNEI dagokionez **herri mugimenduak udalaren aldetik eragile aktibo, zuzena eta ordezkari gisa onartuak izatea izango litzateke erronkarik nagusientekakoa bat.**

Baina argi izan behar dugu atzo eta gaurko egoeran, orohar puntu amankomun gutxi ikusten direla eta Auzo Elkarteak ez dutela belaunaldi transmisio egokia izan, horren ondorioa egun ezagutzen dugun elkarten "krisia".

Alderdi politikoetan oinarritutako sistemak, EZ du guztiz asetzen herritarren nahia eta maiz, interes "a" edo "b" dela eta, gure ordezkatuengandik urruntasuna sentitzen dugu.

Politikari profesionalak, erabiltzen gaituzte, "pilota" egiten gaituzte edo **alde batean jartzen gaituzte gure iritzia beraienarekin bat ez badatorrenean.**

Eta hemen dugu gure lanerako aukera eta hemen egin behar dugu indarra.

INTERPELAZIOA UDALAREKIN GAUR ETA ATZO

Interpelazio hitzak konnotazio negatiboak ditu. Gauzak positiboki eta era konstruktiboan ulertzen badira, ez da interpelaziorik suertatzen, baizik eta **elkarlana**.

Beste gauza izango litzateke interlokuzioaz hitz egitea, eta gai honetan esan behar da herri mugimenduko edozein talde eta gizarte eragile eta... zergatik ez hiritarra bera? etorkizuneko parte hartzeko arautegi egoki baten ondorioz, nahiak edo egitasmoak bultzatzeko mekanismoak sortuko balira.



Esperientziak...

- Easo plaza
- Sinadura bilketak (Arroka , Kiroldegia)
- Batzarrak
- Gatazkak...

Interlokutore izaera izan behar du udalaren aurrean, eta udalak horrela onartu behar du.

Adibidez:

- Plenoan hitza hartzeko eskubidea ez dago (arautegia aldatu behar da) .
- Batzordeetan entzule gisa eta ahots gabe egon beharra.
- Arautegi aldaketa

AUZOGINTZAREN ERRONKAK

Garrantzitsua da Udalak ulertzea proiektu zehatzen diseinu eta gauzapena aberastu egiten dela herri eragileekin kontrastatzen bada. Interes partikularrak alde batera utzita, herritarrak dira guztion interesaren alde ekarpen aberatsenak egin ditzaketenak: interes orokorra

Egun **bi auzo elkarte eredu** izan ditzakegu, a) hirigintzan oinarrituta eta b) Kultura eta “asistentzia”... auzo elkarteak.

Eguno bi eredu horiek, neurri handi batean bada ere, fideltasun politiko bati erantzuten diote.

Auzo elkarteek **despolitizatu** egin behar ditugu, hau da, partiduekiko mendekotasun organiko estua baztertu eta **ideologizatu** behar ditugu (balore etikoak, moralak, kolektibitatearen izaera, elkarrenganako laguntza...).

Fideltasun politiko eta mendekotasun organiko horiek zokoratuz pertsonak gelditzen dira, bere elementu positibo zein negatiboekin, bere beharrekin... Eta hauei erantzun behar dizkiegu egungo krisi egoera larri honetan.

Gizarte borrokan inplikatu behar ditugu/gara... kaleratzeak, gizarte ekintza... beste jarduerak baztertu gabe.

2. HERRI PARTAIDETZAKO TRESNAK

Lehenik eta behin jakin behar genuke zein motatako gatazkak dauden. Gure ustetan gatazka nagusia interes pribatua eta orokorren artean ematen dena da.

Interes publikoa ≠ interes pribatua
Ideologia mailako gatazkak: eskubia ≠ ezkerra
Zentro ≠ periferia : hirigunea ≠ auzoak
Oreka ≠ desoreka

Parte hartzea izango da interes publikoa bermatukoa duena. Edo beste modu batean esanda, parte hartzeak interes orokorra definituko du.



Benetako gatazka sortzen da interes pribatua interes publikoa izango balitz bezala kamuflatzen denean. Eta horren adibide asko ditugu: zaborrak eta errauskailuaren lobbya, AHT-etxebizitzak eta konstruktoreen lobbya...

**TRESNAK:
INFORMAZIOA
FORMAZIOA } ELKARLAN IRAUNKORRAREN BITARTEZ
DEBOLUZIOA**

Tresna ezberdinak beharko dira, parte hartzea ezin duelako zerbait lineala izan, eta proiektu edo egitasmo bakoitzeko tresna bat egokitu behar da.

Herritarrekin eta eragile sozialekin **harreman zuzena, erraza eta arina** bultzatzea: informazioa trukatzeko eta elkarlana sustatzeko.

(kontuan izanda eragile sozialetik egin daiteken kritika ez dela eraso bat bezala ulertu behar, baizik eta ekarpen eraikitzaile gisa).

Gai bakoitzeko herri eragileekin osatutako kontseiluak.

- Proiektu zehatzen aurrean tresna puntualak: NIP, kontsultak, erreferendumak.
- Gai ezberdinen formazio eta eztabaidak. (kontutan izanda gai horien inguruan dauden eragile eta adituak).
- Tresna ezberdinak izan daitezke gaiaren arabera eta horretarako nahita nahiez adibide zehatzetara joan behar da.

ETA AMAITZEKO... ZERGATIK EZ AUZO KONTSEILUAK?

- Auzoetako ordezkariak bozketaz/sufragioz hautatuak izatea, Herri Kontseilua edo AUZO KONTSEILUAK edo bere momentuan Alkate-pedaneok hautatuak ziren bezala.

Eta bitartean udala eta herritarrak hurbiltzeko auzo bakoitzean udal bulego bat, non bere ardura auzotarrak eta bertako eragileak udalaren erabakien berri ematea izango den, hala nola udalan planteatzen ari diren ideiak eta asmoak; honez gain, bulego honek auzoko herritarren eta eragileen proposamenak, ideiak, eta abar jasoko lituzke udalera helarazteko.

Donostia 2013ko Urria

